

BERGARAKO UDALA

Lorazaintza zerbitzuko ofizial lanpostua betetzeko deialdia arautuko duten oinarriak

=====

1.- Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da lorazaintza zerbitzuko ofizial bat, **aldi baterako eta** txandakako kontratuarekin, kontratatzea, lehiaketa-oposizioaren bidez.

Halaber deialdi honekin, oposizio-aldia gainditzen dutenekin Lorezaintza eta lorategietako eta mendiko langileak ordezkatzeko edo aldi baterako premiei erantzuteko lan-poltsa osatuko da.

Kontratuaren iraupena, estimatua, 2017ko uztailaren 20an hasi eta 2021eko ekainaren 4a artekoa litzateke.

Lanpostua sailkapeneko C2 **taldekoa** da, eta **10. mailari** dagokion soldata-maila du. Halaber, 2. hizkuntz eskakizuna dagokio, derrigorrezkoa.

Lan-kontratua lan-jardun partzialekoa izango da, udalak kontrakorik erabakitzen ez badu, eta % 75eko dedikazioa izango du.

Lanegunak eta ordutegia udalak urtean-urtean finkatutakoak izango dira, betiere lanpostuaren izaeraren eta zerbitzuaren premien arabera; adibide gisara, Bergarako jaietan, San Martin jaietan, San Martzial jaietan, Erramu Zapatuan eta horrelako jaietan antolatzen den egitarauak eskatzen duen langile-premiari erantzuteko lan egin beharko du, guztiak egutegian aurreikusiko direlarik.

2.- Betekizunak

Deialdi honen xede diren lanpostuen eginkizunak, besteak beste, ondoko hauek dira:

- Lorategiak sortu eta zaindu, eta herriko zein auzoetako lorategi gune batzuk zaindu.
- Zuhaitzak moztu eta inausi.
- Zuhaitzak, landareak eta zuhaixkak inausi.
- Zuhaitzak eta landare ezberdinak landatu eta noizean behin lotu.
- Zuhaitz guztien oinarriak garbitu.
- Belarra ereiteko edo loreak landatzeko egokiak diren terrenoak eta lorategiak garbitu.
- Lorategiak eta beste lursail batzuk landu.
- Aurreko puntuan aipatutako guneak ongarritu.
- Belarra moztu, landarez egindako hesiak txukundu.
- Sasitza garbitu, orokorrean eta zenbait nekazaritza gunetan.
- Zuhaitz mota batzuk hazi.
- Zuhaitz eta landareak fumigatu, lorategiak ureztatu.
- Lanerako jarri zaizkion pioi eta langileei aginduak eman.
- Ez pasatzeko itxiturak egitea edo bestelako ekipamenduak ipintzea aisia-lekuetan.

- Lorazaintzako erremintak zaindu.
- Zerbitzuko ibilgailuak gidatu.
- Lorategietako arduraduna ordezkatzeari lanpostu horren titulazio eta beste baldintzak beteko balitu eta horrela eskatzen dionean Obra eta Zerbitzuetako buruak.
- Lorezaintzarako makinariaren mantenimendu mekanikoa eta elektrikoa.
- Drenaia sistema antolatu eta ipintzea.
- Konposta-gune komunitarioak fabrikatu, muntatu, mantendu eta behar duten materialaz hornitzea.
- Lanpostu honi eta mendi eta lorategietako ofizialei dagozkienak.
- Plataforma jasotzailea maneiatzea.
- Lanpostuarekin edo/eta kategoriarekin zerikusia izanik zerbitzu-buruak agintzen dizkionak.

3.- Izangaiek bete beharrekoak

Onartuak izateko eta, hala badagokio, neurketan parte hartzeko, ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte izangaiek:

- a) Europar Batasuneko kide diren estatuetakoren baten herritartasuna izatea edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsita Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.
Parte hartu ahal izango du, era berean, Europar Batasuneko kide diren estatuetakoko herritarren ezkontideak, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak ere, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagokoak badira, eta adin horretatik gorakoak, baina bere pentzuan bizi direnak.
Era berean, parte hartu ahal izango dute Espainiako estatuan bizi eta aurreko paragrafoetan sartu gabe daude atzerritarrek. Hauek aukeratuak izango balira, kontratuaren objektu den jardura burutzeko administrazioaren baimena dutela probatu beharko dute, aipatutako kontratua egin baino lehen.
- b) 16 urte beteta izatea.
- c) Lorazaintzako erdi mailako teknikari titulua izatea, edo lorazaintza arloan parekidea eta maila altuagoko titulazioa izatea.
- d) Lanpostuaren berezko egitekoak behar bezala betetzea eragotziko dion gaixotasunik edo akats fisiko nahiz psikikorik ez izatea.
- e) Diziplinazko prozeduraren bidez Administrazio Publikoetako erakundearen zerbitzuetatik bereizitakoa ez izatea, eta administrazio publikoan jarduteko gaitasunaz gabeturik ez egotea.
- f) 2. Hizkuntza Eskakizuna derrigorrezkoa.
- g) B motako gida baimena edo baliokide baten jabe izatea.
- h) Kontratuaren hasiera egunean Urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilearen 12. artikuluko 7. atalean jasotako egoeran egotea, hau da, langabezi egoeran egotea edo epe jakinerako kontratua izatea Bergarako Udalarekin.
- i) Fitosanitarioak aplikatzeko gaitasuna adierazten duen karneta izatea.

Oinarri hauetan zerrendatutako baldintzak eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean egon beharko dira beteta, eta plaza eskuratu bitartean mantendu. f) azpiatalean ezartzen den baldintza bere unean egiaztatu ahalko da.

4.- Eskabideak

Eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan egingo dira. Eredua Bergarako Udaleko Erregistroaren Bulegoan emango dute, eta oinarri hauei erantsirik doa.

Lehiaketa-oposizioan parte hartzeko eskabideak Bergarako Udaleko Alkate-Lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta ondoko baldintza hauek bete beharko dira atzera bota ez izateko:

a) Hirugarren oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute izangaiek, beti ere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagozkiola.

b) Eskabidearekin batera, ondoko agiriok erantsiko dituzte:

- Nortasun-agiriaren fotokopia.
- Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia.
- Hala badagokio, eskatutako hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko tituluen edota egiaztatagiriaren fotokopia.
- Eskabidean adierazitako merezimenduak egiaztatuko dituzten agiriak, lehiaketaren fasean baloratuak izateko.

Laneko esperientzia egiaztatu beharko da lan egindako Enpresek edo Administrazioek egindako ziurtagiriaren bidez, bertan kontratuaren iraupena eta lanaren eginkizunak zehaztuz. Esparru pribatuko esperientzia egiaztatzeko, gainera, Gizarte Segurantzari kotizatu izanaren ziurtagiriak aurkeztu behar dira.

Eskabidean Bergarako Udalean egindako zerbitzuak eta laneko esperientzia adierazi baditu, ez da agiri bidez egiaztatu beharrik izango, eta izangai bakoitzaren espedientean azaltzen diren datuen arabera baloratuko dira.

Prestakuntza osagarriari buruzko merezimendua egiaztatzeko aurkeztuko duen agirian, haren iraupena zehaztu beharko du. Horrela egin ezean, Epaimahaiaren esku geratuko da merezimendu hori baloratzea ala ez.

c) Izangaiek eskabideetan adierazi beharko dute oposizio-aldiko ariketak Erkidego Autonomoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten.

Eskabideak, behar bezala beteta, Bergarako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dituzte, 2017ko uztailaren 6a arteko epearen barruan.

Eskabideak, era berean, 39/2015 Legearen (*urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administraziooko Prozedura Erkidearen Legearen*) 16.4 artikuluan adierazitako Administrazio Publikoetako erregistroetan ere aurkeztu ahal dira. Bergarako Udaleko Alkate-Lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta, eskabideak aurkezteko epearen barruan, dagokion funtzionarioak data eta zigilua jarrita eduki beharko dituzte. Izan ditzaketen egitatezko akatsak, edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesatuak eskatuta.

Egitezko errakuntzarik antzematen bada edozein unetan zuzendu ahal izango da, ofizioz edo interesatuak eskatuta. Ez da egitezko errakuntza kontsideratuko eskabidean merezimenduak adierazi ez izana edo horiek egiaztatzeko agiriak eskabideari erantsi ez izana. Baldin eta interesatuak gai horri buruzko omisioren bat ikusten badu, zuzendu ahalko du eskabideak aurkezteko epea amaitzen den

artean; behin epe hori bukatutakoan, zuzenketa ez da onartuko. Horrek guztiak ez du baldintzatuko gero euskarako jakite-mailaren egiaztapenez esango dena.

5.- Izangaiak onartzea

Onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrendak Bergarako Udaleko iragarki-taulan jarriko dira ikusgai eta baita Udalaren web gunean ere: www.bergara.eus.

39/2015 Legeak, (*urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazioko Prozedura Erkidearen Legearen*) 68. artikuluan xedatutakoaren arabera, Udalak 3 egun naturaleko epea emango du erreklamazioak egiteko.

Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda automatikoki behin betikoa bihurtuko da baldin eta inork erreklamaziorik aurkezten ez badu. Halakorik izanez gero, ordea, beste ebazpen batean onartuko edo errefusatuko dira, eta haren bidez onetsiko da hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda, eta udalaren iragarki-taulan eta Bergarako udaleko web-orrian argitaratuko da.

Ebazpen horren kontra, errekurso kontentzioso-administratiboa jarri ahal izango da Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian bi hilabeteko epearen barruan, onartuen eta kanporatuen behin betiko zerrenda Bergarako Udalaren iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Hori, ordea, ez da eragozpen izango, inork bidezkoztat jotzen badu, beste edozein errekurso aurkez dezan. Aldez aurretik eta nahi izanez gero, berraztertzeke errekursoa jarri ahal izango da, hilabeteko epean.

6.- Epaimahaia

6.1. Osaera: Deituriko hautaketa-prozesuaren epaimahai kalifikatzailea ondokoak kontuan izanda eratuko da: urriaren 30etan onartutako 5/2015 Errege Dekretu Legegileak onartutako Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateratuak 60. artikuluan ezarritakoa, eta ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31. artikuluan ezarritakoa. Epaimahaia mahaiburuak, idazkariak eta Alkate-Lehendakariak erabakiko dituen kideek osatuko dute, eta inoiz ez dira izango bost baino gutxiago. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako kide batek eta langileen ordezkariak izendatutako batek hartuko dute parte epaimahaian. Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izen-zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, onartuen eta baztertuen zerrendekin batera, behin alkatetza-lehendakaritzak izendatutakoan.

Udalan presentzia duten alderdi politikoen ordezkariak parte har dezakete begirale moduan.

6.2. Espezialitatea: Epaimahaiaren eraketa teknikoa izango da batez ere, eta boto eskubidea duten kide guzti-guztiek izango dute deitutako lanpostuetarako eskatzen den titulu edo ikasketa maila berdina edo goragokoa, eta kideen erdiek gutxienez bete nahi den lanposturako eskatzen den ezagutza arloko titulazioa eta espezializazioa eduki beharko dute.

6.3. Abstentzioa eta errefusatzea. Epaimahai kalifikatzailearen kideek ez dute esku hartuko eta alkate-lehendakariari jakinaraziko diote urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. artikuluan oharmandako gorabeheraren bat egonez gero, eta izangaiak mahaikideak ezetsi ditzakete aipatu legearen 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

6.4. Aholkulariak: Aholkulari espezialistak egon ahal izango dira, egokiak iruditutako probak programatzeko edo ebaluatzeko. Aholkulari horiek beren espezialitatearen arloan laguntza ematera mugatuko dira.

6.5. Eraketa eta lan-egitaraua: Epaimahaia lehen proba egin aurretik eratuko da. Eratze ekitaldian epaimahaiko kide titular edo ordezeko gehienek egon beharko dute. Era berean, ekitaldi horretan hautatze-prozesuko egintza guztiak objektiboki eta era eraginkorrean antolatu, garatu eta ebaluatzeko neurri guztiak hartuko dira.

6.6. Jarduketa-prozedura:

a) Epaimahaiaren jarduna, uneoro, urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean xedatutakoaren arabera izango da. Epaimahaia ezin osatu ahal izango da eta jardun ere ez, titularretako edo ordezkari diren kideetako hiru (3) behintzat bertan ez baldin badaude, idazkaria kontuan hartu barik. Epaimahai kalifikatzailearen erabakiak bertan dauden kideen gehiengoak aldeko botoa emanda hartuko dira; boto-berdinketa egonez gero, epaimahaiaren lehendakariaren kalitatezko botoa erabiliko da berdinketa hausteko. Epaimahai kalifikatzaileko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik; idazkariak hitza baino ez du izango.

b) Epaimahaiak, hala behar izanez gero, arau hauek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak egiteko beharrezko diren moldaketa guztiak egin ahal izateko neurri egokienak hartuko ditu.

c) Epaimahaiak ezingo ditu deialdian iragarritako lanpostuen kopurua baino izangai gehiago hautatu. Betiere lanpostua beteko dela ziurtatzeko xedez, hautatutako izangaiak behin betiko kontratua sinatu baino lehenago uko egiten badio, proposaturiko izangaien ondorengo izangaiez osaturiko zerrenda osagarria eskatu ahal izango zaio epaimahaiari.

d) Izangai batek ere gaiturik ez balitu baztertzailerak diren proba guztiak, lanpostua bete gabe geratuko da.

Lehiaketa-oposizioa epaituko duen Epaimahaia kide titularrez eta ordezkoez osaturik egongo da, eta horien izendapena argitara emango da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-taulan.

Epaimahaiburuaren edo bere ordezekoaren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko bestelako kausa gertatzen bada, ordezkapen horretarako izendatu den bokalak ordezkaturiko du; eta hura ere bertaratu ez balitz, Epaimahai Kalifikatzaileko kideen artean adin handiena duenak.

Idazkariaren eta haren ordezekoaren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko bestelako kausa gertatzen bada, Epaimahai Kalifikatzaileko gehiengoaren erabakiz hautaturiko beste edozein kide hartuko du haren lekua.

Epaimahai Kalifikatzaileak erabateko autonomia funtzionalarekin jardungo du, betiere prozeduraren legezotasuna zainduz eta haren objektibotasuna bermatzeko ardura izanez. Era berean, ordenamendu juridikoaren arabera, honako oinarrien aplikazioan sor litezkeen zalantza guztiak ebatziko ditu eta lehiaketa-oposizio honen nondik norakoak ordena onean burutzeko beharrezko diren erabakiak hartuko ditu, oinarrietan aurrekusi gabeko kasuei buruz hartu beharreko irizpideak ezarriz.

Hauta-prozesuko edozein unetan, baldin eta Epaimahai Kalifikatzaileak jakiten badu hautagaietakoren batek ez duela betetzen deialdi honek eskatzen dituen baldintzetakoren bat, interesatuari entzun eta gero, prozesutik kanporatzea proposatu beharko dio organo eskudunari, hautagaiak eskabidean adierazitako okerrak edo gezurrak jakinaraziz.

7.- Gaitasunaren faseko ariketak

Bergarako Udaleko iragarki-taulan eta WEB orrian argitaratuko da lehenengo ariketa egiteko deialdia, eta han adieraziko da azterketa zein egun, ordu eta tokitan egingo den.

Lehen ariketak dituen bi frogak Uztailean egingo dira behean jarritako datetan astean izango dela aurreikusten da.

Ondorengo deialdiak Epaimahaiak iragarriko ditu, aditzera emateko egoki deritzon moduan.

Gaitasunaren fasean ondoko ariketa hauek egingo dira:

—Lehen ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzaila.

Ariketa hau bi frogek osatuko dute:

1. Froga teorikoa. Lorazaintzako ofizial lanpostuaren eginkizunekin eta eranskinean jasotako galdetegiak jasotako gaiekin zerikusia duten galderei erantzun beharko zaie. Epaimahaiak erabakiko du izangaiek erantzun beharrekoak, test moduko izango den, eta nola puntuatuko den. Froga honetan gehienez 10 puntu lortu ahal izango dira.

Froga hau uztailaren 13an goizeko 9:00etan egingo da Bergarako kultura etxean.

2. Froga praktikoa: lorazaintzako ofizial lanpostuarekin zerikusia duen(ten) froga(k) egin beharko dituzte.

Froga honetan gehienez 20 puntu lortu ahal izango dira

Froga hau uztailaren 19an goizeko 8:00etatik aurrera egingo da. Izangaiei txandak aurretik jakitera emango dira Udalaren WEB orrian eta udaletxeko iragarki taulan jarriko den ohar baten bidez.

Prozesuan jarraitu ahal izateko ariketa bakoitzean epaimahaiak erabaki eta izangaiei aurretik adieraziko dien gutxienerako puntuazioa ateratzea ezinbestekoa izango da.

— Bigarren ariketa: Euskara proba, derrigorrezkoa eta baztertzaila.

Euskarako froga. Izangaiei euskara maila neurtzeko ahozko eta idatzizko froga egingo da. Derrigorrezko 2. hizkuntza eskakizunari dagokion euskara maila dutela egiaztatu beharko dute. Ez da punturik emango eta izangaiek gai edo ezgai sailkatuko dira, froga hau gainditzen ez dutenek hautaketa bidetik baztertuta geldituko dira.

Ez dute froga hau egin beharrik izango ziurtatzen dutenak 2. hizkuntza eskakizunarekin parekatutako agiriren baten jabe direla, betiere, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateria egokitzeko apirilaren 8ko 64/2008 Dekretuak jasotakoaren arabera.

Egiaztapen hau froga hasi baino lehen aurkeztu beharko da.

8.- Merezimenduen fasea.

Epaimahaiak ondoko merezimendu hauek balioztatuko ditu, baldin eta, laugarren oinarriko b) atalean xedatutakoaren arabera, eskabidean adieraziak eta agiri bidez egiaztatuak izan badira, eta, beti ere, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna kontuan hartuz:

- a) Bete behar den lanpostuaren funtzioekin erlazionatuta egindako lana: Gehienez ere 6 puntu arte, hileko 0,15 puntu.

Merezimendu horiek, Enpresa-ziurtagirien edo zerbitzuak bete diren Administrazioak luzatutako agirien bitartez eta gizarte segurantzak luzatutako laneko bizitzaren agiriarekin lagunduz egiaztatu beharko dira. Egiaztagirietan betetako funtzioak zehaztu beharko dira.

b) Formazio osagarria: prestakuntza-jarduerak egitea lanpostuaren egitekoekin zerikusirik duten ikasketak, ikastaroak, mintegiak edo beste formazio ekintzak, gehienez ere 4 puntu arte balioztatuko direnak:

-Puntuazio zehatza izango duten honako hauek:

- Baliabide natural eta paisajistikoen kudeaketa eta antolaketako goi mailako teknikari titulua: puntu bat.
- Motozerraren ECC ziurtagiriak. Bakoitza 0,50 puntu.
- B96 edo B+E gida-baimena. 0,10 puntu.

-Lanpostuarekin zerikusia izan eta erakunde ofizialek edo horiek homologatutako besteren batek eskainitako ikastaroak edo mintegiak egin izana. Ikastaro horiek kontuan izatekotan, gutxienez 10 orduko iraupena izan beharko dute. 10 orduko ikastaroak 0,10 punturekin baloratuko dira, eta ordu gehiagokoak proportzionalki baloratuko dira.

9.- Gaitasunaren fasea garatzeko era

Epaimahaiak, hala erabakiz gero, alda dezake zazpigarren oinarrian adierazitako ariketen hurrenkera, eta egun berean proba bat egitea ere erabaki dezake.

Epaimahaiak ariketak egiteko deialdian jarritako egunean, lekuan eta orduan agertzen ez diren izangaiak, baita ezinbesteko arrazoiengatik bada ere, hauta-prozesutik kanpo geratuko dira erabat.

Gainditu beharreko ariketa bakoitza burutu ondoren, Epaimahaiaren erabakiz, iragarki-taulan emango da argitara ariketa gainditu dituzten izangaien zerrenda.

10.- Epaimahaiaren proposamena

Izangai bakoitzak bi fasetan lortu dituen puntuak batuta aterako da haren azken kalifikazioa, eta batura horrek erabakiko du izangaiak lehenesteko hurrenkera.

Puntuetan berdintasuna gertatuz gero, ondoko irizpide hauen arabera ebatziko da, jarrita dauden hurrenkeran:

- a) Proba praktikoetan puntu-kopururik handiena ateratzea.
- b) Proba teorikoan puntu-kopururik handiena ateratzea (1. ariketa).
- c) Epaimahaiak erabakitzen duen irizpidea.

Ariketak balioztatu ondoren, Epaimahaiak iragarki-taulan agerian jarriko ditu izangaien izenak, lortu dituzten puntuen arabera hurrenkeran antolatuta: puntu gehienekotik gutxienekora.

Era berean, kontratatuko den izangaiarena eta beste zerrenda ere argitaratuko du, sailkapeneko hurrenkerari jarraituz.

Epaimahaiaren iritziz deialdira aurkeztutako izangaien artean ez badago kontratatua izateko betetzeko gutxieneko baldintzak betetzen dituenik, deialdia hutsik aldarrika ditzake.

Epaimahaiak Bergarako Udaleko organo eskudunari igorriko dio akta, behar diren kontratazioa egin dezan.

Proposatutako izan diren izangaiak, 20 egun naturaleko epean, lehiaketan parte hartzeko oinarrietan eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten jatorrizko agiriak aurkeztuko dituzte.

Ezarritako epean, eta ezinbesteko arrazoiren batengatik izan ezean, izangairen batek agiriak aurkezten ez baditu, edo eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen ez badu, ezingo da kontratatua izan,

eta bere jardun guztiak baliorik gabe geratuko dira. Kasu horretan, lehiaketa gainditu eta azken kalifikazioaren hurrenkeran ondoren dagoenaren edo daudenen aldeko proposamena egingo du organo eskudunak.

11.- Kontratazioa-Praktikaldia

Alkate-udalburuak epaimahaiak proposaturiko izangaiari Txandakako kontratua egingo dio, legeak aurreikusitako frogaldia izango duelarik, hau da bi hilabetekoa.

Frogaldi honek hautaketa prozesuaren atal baten izaera izango du eta azken balorazioa gai/ez-gai izango da.

Epe hori amaitu aurretik, dagokion arduradunak langileak egindako lanari buruzko txostena egingo du, eta erakutsi dituen gaitasunak hartuko ditu kontuan txosten horretan:

- lanerako ahalmena eta errendimendu profesionala, erantzukizunaren eta eraginkortasunaren zentzua, lanerako prestasuna eta ekimena, eta lanarekiko interesa.
- lan-taldera moldatzeko erakutsi duen gaitasuna ere hartuko da kontuan.

Behin behineko ezgaitasun egoeratik, amatasunagatik, aitatasunagatik eta adopzioa edo harreragatik lizentzia hartzeak frogaldiaren etenaldia suposatuko du eta lanera bueltatzerakoan falta den frogaldiari dagokion epea berriz hasiko da zenbatzen.

Behin betiko kontratua egin aurretik enpresa-medikuaren ikuskapena pasatu beharko du, bere osasun egoera ona dela eta lanpostuaren eginkizunak betetzeko gai dela egiaztatzeko.

12. INTZIDENTZIAK.

Epaimahai Kalifikatzaileak ahalmena izango du sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta oposizio-lehiaketaren ordena eta buruzpide onerako behar diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusten ez diren gorabehera guztietan.

13. LAN-POLTSA

Txandakako kontratua egiteko lehentasunik ez baina oposizioa gainditu duten hautagaiekin, lorazain ofizialen aldi baterako betetzeko premietarako lan-poltsa osatuko da, horren erabakia hartuko balu udalak.

Lan-poltsa hau indarrean sartuko da horren ebazpenarekin batera eta egun indarrean daudenak ordezkatzeko ditu, honek haien (lorategietako ofizial eta mendi eta lorategietako peoi) aurretik lehentasuna izango duelarik.

Lan-poltsak, indarrean jartzen denetik kontatzen hasita, bi urteko balioa izango du, baina urtez urte eta gehienez ere beste lau urtez luzatu ahal izango da, Barne Batzordearen proposamenari jarraituz Alkate-Lehendakariak kontrakorik erabakiko ez balu.

Lan-poltsaren funtzionamendua Udalak onartua duen lan-poltsen erabilerarako barne araudiak jasotzen duena izango da.

14. INPUGNAZIOAK.

Interesdunek oinarri hauen aurka egin dezakete –inpugnatu–, indarrean dagoen 39/2015 Legeak, (*urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazioko Prozedura Erkidearen Legearen*) ezarritako epe eta moduan.

15- Dokumentazioa itzultzea

Instantziarekin batera aurkeztu den dokumentazioa jasotzeko eskubidea izango dute aurkeztu diren izangaiek, kontratatuko direnek eta lan-poltsarako izendatuko direnek izan ezik.

Hautaketa prozesua bukatu eta 3 hilabeteko epean jasotzen ez den dokumentazioa txikitu eta bota egingo du Udalak.

16.- Prozesuaren argitalpenak.-

Prozesu honetan argitaratu beharrekoak (onartuen eta baztertuen zerrenda, oposizioaldiko emaitzak, lehiaketaldiaren emaitzak...) Bergarako Udaleko Web orrian ere argitaratuko dira(www.bergara.eus).

Datu pertsonalen babeserako araudiari jarraituz, edozein izangai edo partehartzailek izango du bere datuak eskuratu, zuzendu edo ezabatzeko eskubidea; horretarako eskaera aurkeztu beharko du helbide honetara bidalitako idatziaren bitartez: Bergarako Udala, San Martin de Agirre plaza 1, 20570 Bergara.

17. Gorabeherak.

Epaimahai kalifikatzailea eskuetsirik dago sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta lehiaketa-oposizioaren jarduera ona zaintzeko beharrezko diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan eta aplikazio osagarriko legedian xedatu ez diren kasuetarako.

I ERANSKINA

- 1- Oihaneko arbola motak eta apaingarriak. Nola garraiatu, nola erabili, noiz loratzen diren jakin.
- 2- Zuhaixka motak. Nola garraiatu, nola erabili, noiz loratzen diren jakin.
- 3- Lurzoru motak. Konpostatzea. Konpostaren erabilera eta lorazaintza. Motak eta baliabideak.
- 4- Baso-lanetarako eta lorategietako erremintak. Erabilpenak eta motak.
- 5- Baso-lanetarako eta lorategietako makinaria. Zainketa eta erabilera. Kontsumoa gutxitzea eta energia-eraginkortasuna.
- 6- Arboladien kimaketa: Motak, egitura, zainketa, egutegia.
- 7- Zuhaixkak kimatu eta hesi mozketa: Motak, garaia, egutegia.
- 8- Arboladiak berritu. Faseak.
- 9- Material begetala eragiteko metodoak.
- 10- Soropil eta belardiak. Nola zaindu. Ureztaketak.
- 11- Garaiko lore-motak. Erabilpenak eta loraldia.
- 12- Landare bizikorrak eta Erraboilak.
- 13- Gora joaten diren landareak (trepatzaileak) eta tapizatzaileak.
- 14- Gaitzen aurkako tratamenduak. Ikuspegi orokorreko borroka. Tratamendu biologikoak. Herbizida.
- 15- Hiriko arbolak. Alineamenduak. Euskal Herriko Natura Zaintzeko Legea: Arbola bereziak.
- 16- Lorategiak egiteko estiloak eta diseinua.
- 17- Ureztatze sistemak.
- 18- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuak Prebenitzekoa. Oinarrizko kontzeptuen definizioa. Langileen eskubideak lan arriskuetatik babesteko. Langileen betebeharrak.

BERGARAKO UDALA - AYUNTAMIENTO DE BERGARA Bases que regirán la convocatoria para la provisión de una plaza de oficial del servicio de jardinería

=====

1.- Objeto de la convocatoria

Constituye objeto de la presente convocatoria la contratación temporal con contrato relevo, mediante concurso-oposición, de un oficial del servicio de jardinería.

Así mismo mediante esta convocatoria con las personas aspirantes que aprueben la fase de oposición se creará una bolsa de trabajo para atender a las necesidades de sustitución o de contratación de carácter temporal que surjan en la brigada de jardinería o de montes y jardines.

La duración estimada del contrato sería del 20 de julio de 2017 hasta el 4 de junio de 2021.

El puesto de trabajo está incluido en el grupo de clasificación C2, con un nivel retributivo 10. Asimismo, tiene asignado el perfil lingüístico 2, con carácter preceptivo.

El contrato laboral será de jornada parcial, a no ser que el ayuntamiento adopte otro acuerdo, con una dedicación del 75 %.

El calendario y horario laboral serán los fijados por el ayuntamiento cada año, adecuándose siempre a las características del puesto y a las necesidades del servicio. Por ejemplo, deberá trabajar para cubrir las necesidades de personal del programa de fiestas de Bergara, fiestas de San Martín, fiestas de San Marcial, Sábado de Ramos y similares, con previsión de todas ellas en sus calendarios.

2.- Funciones

Las funciones de los puestos de trabajo objeto de esta convocatoria, entre otras, son las siguientes:

- Creación y mantenimiento de jardines y algunas zonas del pueblo y zonas rurales.
- Tala y poda de árboles.
- Poda de árboles, plantas y arbustos.
- Plantación de árboles, diferentes plantas y sujeción periódica de los mismos.
- Limpieza de las bases de todos los árboles.
- Limpieza de jardines y de terrenos apropiados para la siembra de hierba o plantación de diferentes flores.
- Labrado de los jardines y demás terrenos.
- Abonado de todas las zonas referidas en el punto anterior.
- Cortar el césped, arreglo de setos.
- Limpieza de maleza en general y en zonas rurales del pueblo.
- Cultivo de algunos tipos de árboles.
- Fumigación de plantas y árboles, riego de jardines.
- Dar órdenes a los peones y trabajadores bajo su mando.
- Realización de cierres para impedir el paso y colocación de equipamientos en zonas de ocio.

- Mantenimiento de las herramientas de jardinería.
- Conducción de los vehículos del servicio.
- Sustituir al responsable de servicio de jardinería, siempre que reúna los requisitos de titulación y demás requisitos de ese puesto de trabajo y así lo requiera la jefa de Obras y Servicios.
- Mantenimiento mecánico y eléctrico de la maquinaria de jardinería.
- Organización e instalación del sistema de drenaje.
- Fabricación, montaje y mantenimiento de las zonas de compostaje comunitarios y abastecimiento del material que se precisa
- Otros trabajos correspondientes a este puesto de trabajo o al de oficial de montes y jardines.
- Manejo de la plataforma elevadora.
- Realizar los trabajos que le encomiende la jefatura del servicio relacionados con el puesto de trabajo y/o categoría del mismo.

3.- Requisitos de las personas aspirantes

Las personas aspirantes deberán reunir los siguientes requisitos para su admisión y, en su caso, participación en el procedimiento:

